DIRULAGUNTZA HITZARMENA

1. *Onuraduna:*

Elkartearen izena: Berriak, Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkartea
IFK zenbakia: G-20448593
Helbidea: Andre kalea 30
K/K zenbakia: ES89 3008 0170 15 1019863321
Ordezkaria: Nagore Alvarez Iraola, NA 72468565G duena

2. *Hitzarmenaren xedea.*

Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzea eta, bide horretatik, elkartea babestea.

Testu inguru horretan, Berriak, Hernaniko Merkatari eta Ostalarien Elkartearen asmoa da Hernaniko udalerria merkataritza, zerbitzu eta aisialdi gune gisa dinamizatzea, kontsumitzaileentzako erakargarri eginez eta zerbitzu pertsonalizatua emanez, merkataritza hurbileko zerbait bezala senti dezaten.

Helburu horiek erdiesteko urteko jarduera-plana aurkeztu du Berriak elkarteak.

Udalerrian antolatzen diren ekintzen partaide egin nahi dira hernaniar guztiak.

3. *Hitzarmenaren justifikazioa.*

Herriko merkataritzari laguntza emanaz enplegua sustatzen da, herritarren bizi kalitatea hobetzen da, oro har merkataritza eskaintza zabala bermatzeko pausoak ematen dira eta herria bizirik mantentzen da. Komertziorik gabeko herria hilik baitago.

Berriak elkartea irabazi asmorik gabekoa da. Merkatarien, ostalarien eta herriko zerbitzuen sektorearen ordezkaritzan aritzen da hauen interesak defendatuz. Horretarako lan-mahai eta foroetan parte hartzen du, banakako aholkularitza eta kudeaketa profesionala eskaintzen du, doako formakuntza programak sortu edo bideratzen ditu eta animazio eta dinamizazio ekintzak burutzen ditu, besteak beste.

Hernanin dagoen merkataritza eta ostalaritza elkarte bakarra da Berriak.
Horregatik, dirulaguntza zuzena ematen dio Udalak, deialdi publikoa egin gabe.

Udal dirulaguntzen plan estrategikoaren 6. lerro estrategikoarekin bat egiten du bete-betean: sustapen ekonomiko eta soziala. Helburu estrategikoak: garapen ekonomiko jasangarria eta enpleguaren sustapenaren alde egitea, herritar guztien bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko neurriak sustatzea. Helburu zehatzak: enplegua sortu eta baliabideen jasangarritasuna bermatzen dute enpresa proiektuak hazten eta finkatzen laguntzea, kalitatezko enpleguaren sorrera sustatzea, gertuko merkataritza dinamizatzea eta sustatzea.

Udal dirulaguntzen plan estrategikoaren 4. lerro estrategikoarekin ere bat egiten du: Euskara sustatu. Helburu estrategikoa: euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea. Helburu zehatzak: merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzea, bezeroen eta merkatarien edo ostalarien artean euskararen erabilera sustatzea.

4. Dirulaguntzaren epea:

Hitzarmena indarrean egongo da, sinatzen denetik, gehienez ere 4 urtez (2023, 2024, 2025 eta 2026).

5. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa.

Zenbatekoa eurotan: 27.000,00 €
Aurrekontu Baimendu zenbakia: AD-375/2025
Partida zenbakia (diru-laguntza izenduna): 1 02.481.01.431.00 2024 (4552) BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA

6. Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak.

Dirulaguntzaren % 60 (16.200,00 €) aurrerapen gisa ordainduko da, hitzarmenaren onarpenarekin batera.

Dirulaguntzaren gainerako % 40a (10.800,00 €) justifikazioa aurkeztean ordainduko da, Alkatearen (edo eskuordetza) ebazpen bidez, ondoko puntuan zehazten diren dokumentuak aurkeztean.

7. Diru-laguntzaren justifikazioa.

1. Epea: 2026-03-31
2. Diruz lagundutako jardueraren memoria, ondoko gutxieneko edukiarekin: Proiektuaren azalpena; dirulaguntza zer helburutarako eman den; egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak.
3. Egindako jardueren kostua justifikatzeko balantze ekonomiko laburtua, Hernaniko Udalaren dirulaguntza kontuan hartu gabe izandako DEFIZITA adieraziz.
4. Gastu eta sarreren zerrenda sailkatua, gastu kontzeptuen arabera antolatuta. Zehaztuta izango ditu: hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta ordainketa data.
5. Fakturak, eta dagokion kasuan gastua egiaztatzeko balioa duten bestelako agiriak, eta ordainketaren egiaztagiriak.
6. Kontabilitate ekitaldia amaitu ondoren, Ogasunaren aurrean aurkeztutako “Sozietate Zerga” aitorpenaren kopia.

7. Jasotako beste dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta ebazpenen kopia.
8. Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantza.
9. Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

8. Aplikatu beharreko araubide juridikoa.

Dirulaguntza hau arautuko du, diru-laguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Diru-Laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoak, bai eta Udal Diru-laguntzen araudiak.

Zuzeneko dirulaguntzetarako baldintzak:

- Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusia egotea (887/2006 Errege Dekretua, 65. artikulua).

- Hitzarmenaren iraupena bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legeak 49 artikuluan xedatutako gehienezko epearekin. Dirulaguntza gauzatu ahal izateko, Udalak urteroko aurrekontuan beharrezko gastu kontsignazioa gorde beharko du.

9. Onuradunaren aitorpena.

Onuradunak aitortzen du ez dagokiola dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan dirulaguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

10. Helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da dirulaguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, **dirulaguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan**.

11. *Kontabilitate liburu eta erregistroak, dirulaguntza egoki justifikatzea bermatzeko eta finantzak kontrolatzeko eskatuak.*

Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzekoa zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

12. *Espediente honi atxikitutako dokumentuak.*

- Elkartearen eskaera edo memoria. Edukia, beteak beste: diruz laguntzen den jardueraren azalpena; jardueraren balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuak).
- Elkartearen estatutuak.
- Saileko teknikariaren txostena, justifikazioa.
- Zerga betebeharren ziurtagiriak: Ogasuna eta Gizarte Segurantza.
- Banku kontuaren titulartasuna akreditatzen duen agiria.

13. *Berriak elkarteak antolatutako jardueren inguruko betebeharrak.*

Berriak Elkarteak antolatzen dituen ekintzen berri eman beharko dio Udalari, zentzuzko epe baten barruan. Aipatutako ekintzak antolatzeko Babes Zibileko Asegurua eduki beharko du.

Era berean, Udalak diruz lagunduta antolatzen dituen ekintzen publizitate guztian, Berriakek Hernaniko Udalaren kolaborazioa adierazi beharko du. Beti ere, Udalaren irudi korporatiboaren arauak eta hizkuntza irizpideak errespetatuaz.

Azkenik, Udalak diruz lagunduta antolatzen dituen ekintza guztietan, jarduerarekin zerikusia duten establezimendu guztietara -Berriak elkarteko bazkide izan ala ez- iristeko ahalegina egingo du, horien parte hartzea mugatu edo baldintzatu gabe.

14. Euskararen erabilpena.

Berriak elkarteak konpromisoa hartzen du Hernaniko merkataritza sektorean euskararen erabilera sustatzeko Udalak berak edo beste eragile batzuekin batera bultzatzen dituen egitasmoetan kide izango dela, bai herritarrekiko harremanetan, bai barnera begira euskara izan dadin lan eta harreman hizkuntza.

Diruz lagundutako jardueretarako hizkuntza irizpideei dagokionez:

a) Diruz lagundutako jarduera adingabekoei eta gazteei zuzendua denean (puzgarriak, erakusketak, pailazoak, antzezlanak, tailerrak..) Jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz. Berriak elkarteak inor kontratatzen badu jarduera hori egiteko, horrek ere irizpide horiek bete beharko ditu.

b) Diruz lagundutako jarduera herritar orori zuzendua denean (azokak, kanpainak...) idatzizko komunikazioa (publizitatea, iragarkiak, oharrak, jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) eta ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpena, megafonia...) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez. Jarduera girotzeko musika jarriz gero, abesti guztiak euskaraz izango dira. Berriak elkarteak inor kontratatzen badu jarduera hori egiteko, horrek ere irizpide horiek bete beharko ditu.

c) Urteko memorian jasotako informazioaz gain, diruz lagundutako jarduera bakoitzean erabilitako hizkuntzari buruzko informazioa ere jasoko da. Euskara Zerbitzuak emango du informazioa jasotzeko hizkuntza aholkularitza.

Horiez gain, Udalaren eta Berriak elkartearen arteko harreman oro, ahoz eta idatziz, euskaraz izango da. Hori horrela izan dadin, Berriak elkarteak ordezkari elebiduna izendatuko du bai udalarekin izango dituen bileretarako eta baita beste edozein harremanetarako ere.

Hernanin, 2025eko martxoaren 21ean

Hernaniko Udalaren izenean	Berriak Elkartearen izenean
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra	Nagore Alvarez Iraola
Hernaniko Alkatea	Berriak elkarteko Lehendakaria